

Elkarrizketa Jon Elortzari

Jon Elortza zerga ikuskariordea da. Berriki, kontabilitate ikastaroa egin du euskaraz, departamentuko prestakuntza planaren barruan. Ikastaroari buruz galdetu diogu ERROTAN BERBETAN blogean, prestakuntza euskaraz hartzeko bere esperientzia beste langileontzat baliagarri izan daitekeelakoan.

Galdera. Zeri buruzko ikastaroa izan da eta zenbatek parte hartu duzue?

Kontabilitate egoeren analisiari buruz izan da, eta hamabost bat ikasle izan gara.

G. Zertarako balio izan dizu?

Alde batetik, gaia sakontzeko berrikuntza handiak izan dira kontabilitate arloan, eta bestetik, euskara maila aberasteko. Orain arte, kontabilitatea gaztelaniaz ikasi izan dut, eta ez nekien zenbait hitz nola esaten diren euskaraz.

G. Zer deritzozu ikastaroari?

Interesgarria izan da, teoria ikusi badugu ere, gehien bat praktikoa izan da. Horrelako ikastaro laburretan ez dago aparteko sakonketa egiterik, eta gaiak praktikoa aldetik ikustea eskertzekoa da. Bestalde, ikastaroa euskaraz izanagatik ez dut aparteko zailtasunik nabaritu.

G. Horrelako ikastaroek bide ematen al dizuete lana euskaraz egiteko?

Orain arte ez zait tokatu urteko kontuak euskaraz ikustea. Ahozko harremanetan aritu izan naiz euskaraz, baina konfiantza handirik gabe. Aurrerantzean tokatuz gero gutxienez oinarri hobea izango dut, eta neuk erabiltzeko ere erosoago sentituko naiz.

G. Ogasun eta Finantza Departamentuaren hizkuntza ofizialen erabilera planaren helburuetako bat da langileek gero eta gehiago euskaraz egitea izanik, komenigarri ikusten al duzu formazio saio gehiago euskaraz egitea?

Beharrezkoa iruditzen zait. Gero eta gehiago departamentutik ateratzen diren idatziak elebitan daude, jasotzen diren idatzietan ere nabaritzen da euskararen gehikuntza, eta bereziki ahozko harremanetan gehitzen ari da euskararen erabilera. Arlo horretan oso interesgarri iruditzen zait Zeharkako Zergen Zerbitzuan antolatu diren ikastaro-tailerrak: egunero izaten diren ohiko gaiak euskaraz aztertzeko balio izango dute.

G. Zure esperientzia ikusirik, zer esango zenieke departamentuko langileei formazioa euskaraz hartzeko aukerari buruz?

Zenbait gai euskaraz aztertzea, agian kezka sortuko digu, orain arte gaztelaniaz erabili izan ditugulako. Baina, uste dut aurrera pauso bat eman beharko genukeela kezka horiek ahazteko, probatu egin behar da.

Kontuan izan behar da gaiaren mamiaren aldetik edukiera berdina izaten dela euskaraz eta gaztelaniaz, ikasi edo ez ikasi berdina egingo dugu.

Bestetik, gure euskara maila eta konfiantza aberastu dezakegu.

Azkenik, zerbitzu zabalago eta hobeagoa eskaintzeko aukera ematen digu. Nik uste dut, jendeak gero eta gehiago eskatu eta eskertzen duela arreta euskaraz izatea. Gainera, zenbait puntu hobeto ulertu ditut. Esan beharra dago, irakasleak kontzeptuak garbiago azaltzen saiatzen direla.